



BARREN
TOKIKOM



Musikak batuta

Sotoko Hotsak eta Gararock



Astean ordubete, dakizuna hobetzeko eta ez dakizuna ikasteko. Eta gainera, doan!
Animatu eta eman izena urriaren 11 baino lehen!

IZEN EMATEA ETA INFORMAZIOA

Irailaren 24tik urriaren 11ra arte

<https://labur.eus/tertuliak>

Elgoibarko Izarra (943 741 626)
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Udal Euskaltegia (943 742 731)
udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

AEK euskaltegia (607 601 423)
elgoibar@aek.eus

Aholkulariak



Erakundeak



ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

18-19 IKASTURTEA

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkataria eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak
- EGA

16 urtelik gorakoentzat
Matrikula Zabalik Irailaren 26ra arte
Langabetu, ikasle eta gurasoek, Matrikula Erdia
Ikastaro amaleran BEKAK denentzat (Baldintzak betez gero)
Informa zaituz Udal Euskaltegia!



18/19

Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierto

www.udaleuskaltegiak.eus

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Kalebarren plaza, 2

943 742 731

Elgoibar : 09:00 -13:00 /15:30 - 19:30



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa

Amamak

Bi amama beharrean lau izateko zor-
tea izan dut, odola ez baita lotura
egiten duena, eta zirauen bakarra
zendu da. Belaunaldi oso bat hutsik neure
gogoan, eta ardura sentitzen dut, euren
jakituria mantendu eta zabaltzekoa.

Kandidaz ezin dut asko gogoratu,
lehen urteetan soilik izan baikenen au-

kerak elkarrekin egoteko; ba-
dakit ingurukoak zaintzen
pasa zuela bizitza, gogor lan
eginaz. Joxepak bazuen amama
izateko griña eta hala onartu gin-
tuen; nolako artea zuen oiloak zain-
tzen eta baratzari probetxua ateratzen.
Merche berriz, kalean bizi arren, lokatza
azalean sentitzeak sentiarazten zuen
bere lekuan eta animaliekiko lotura be-
rezia zuen, neuk bezala. Kontxi joan
zaigu azkena, Juanito hil zen garai be-
retsuan joan da, bera topatu nahian
edo... Euskaldunon aintzinako ofizioa
izan zuen, hiru probintzietako larreak
ezagutzen zituzten euren ardiek, eta ti-
rriki-tarraka horretan, bizitzeko behar

zuten guztiaren artean sei seme-alaba
zeramatzaten.

Lana eta zaintza uztartzearen zailtasu-
nak belaunaldi berrienak direlakoan
gaude, baina emakumeok betidanik lan
egin dugu latz. Guri falta zaiguna eurek
zuten komunitatea da. Naturari lotuta bi-
zitzeak geure buruaz haratago dagoena-
ren kontzientzia ematen digu; herri edo
hirietan bizi gara natura geure zerbitzura
dagoelakoan; ez dugu zahartu nahi, gai-
xotzeko beldurrez bizi gara, eta heriotza
dagoenik ere ez dugu jakin nahi. Geure
esku ez dagoena lasaitasunez onartzeko
gai bagina, gutxiago sufrutuko genuke; eta
hau ez dago liburuetan, amamen jakitu-
rian baizik.

*“Emakumeok beti lan egin dugu latz,
guri falta zaiguna eurek zuten komunitatea da”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Legebiltzarreko Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-
kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain
hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-
koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZE-
TARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati
Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUB-
LIZATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO**
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK**
Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon
Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena,
Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpi-
llaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula
Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki
Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirre-
azaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA**
4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDOLA
KLUBA

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
2003

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO

Joan den asteburuan, Derry Taberna dardo-taldekoak Oliva-Valentzian izan gara Espainiako dardo txapelketan jokatzen. Gure taldeko Jurgi Casadok hirugarren egin zuen sailkapen nagusia, 16 urtez azpikoetan. Zorionak, Jurgi! Era berean, eskerrak eman nahiko geniz-

kioke Derry tabernako Patricki, emandako laguntza eta babesagatik. Kamiseta ederrak egin zenituen, Patrick!

Roberto Sanchez

► ESKERRIK ASKO

Kale kantarien arduradunon partez, mila esker gure herriko jaietan, feri egunean,

kantu kalejiran parte hartu zenuten guztioi. Benetan giro onean egin genuen goiza. Animatu eta parte hartu berriz ere gure hileroko kantu-jiran. Hurrengora arte.

Elgoibarko Kale Kantariak

2019ko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA



■ GAIA: ELGOIBARKO KOLOREAK

■ **ARGAZKIEN FORMATUA:** Argazkiak etzanak/horizontalak izan beharko dira, eta gutxienez 2 Mb eta gehienez 10 Mb-eko pisua izango dute. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu beharko dira.

■ **LAN KOPURUA:** Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

■ **LANAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA:** Argazkiak bidaltzeko bi aukera daude:

a) Argazkiak CD batean, itxitako gutun-azalean, eta honako izenburuarekin aurkeztuko dira:

"Elgoibarko egutegia 2019" Argazki Lehiaketa. Barruan egilearen datuak jarriko dira (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, helbide elektronikoa, eta argazkiaren izenburua, lekua eta data). Helbidea: Kultur Etxea (Euskara Saila), Kalebarren plaza 3, 20870 Elgoibar.

b) Emailez, euskara@elgoibar.eus helbidera bidalita. Hemen ere aurreko datu guztiak azaldu beharko dira. Parte-hartzaileak konfirmazio mezu bat jasoko du lehiaketan onartua dagoela jakinarazteko.

■ **Argazkiak aurkezteko epea: 2018ko urriaren 10a arte.**



IKASTOLAN, DENOK GARA GU

2018an jaiotako haurren matrikulazio-aldia zabalik,
irailaren 17tik 28ra, azarotik otsailera bitartean hasiko diren haurrentzat

elgoibar ikastola

943 744441

www.elgoibarikastola.eus

Ordutegi zabala: 7:30-19:30
Jai-zubietan eta oporretan irekita



San Bartolome jaiak "jendetsuak eta lasaiak" izan direla nabarmendu du Elgoibarko Udalak

San Bartolome jaien balorazio "oso positiboa" egin du Elgoibarko Udalak. Jaietan jendetza bildu zela azaldu dute, parte-hartzea handia izan zela. Era berean, oro har, jaiak errespetuan joan direla nabarmendu dute. "Puntu ilun bakarra azken eguneko eraso sexista izan da", zehaztu dute horren harira: "Tamelez, 2018ko jaietako sentsazio onak apur bat lausotu ditu gertaera horrek". Alkateak, baina, eskerrak eman dizkie herritarrei, eraso horren kontra agertutako jarraeragatik eta emandako erantzun azkar eta bateratuagatik.

Udalak 209.000 euroko aurrekontua izan du jaietarako, iaz baino 45.000 euro handiagoa eta guztira ehun ekitaldi inguru izan dira. Jendetsuenen artean, kontzertuak aipatu dituzte: Gatibu, Hesian, Nogen eta Serafin Zubirirenak eta baita iazko jaietako talde errebelazioarena: Rockbox. Ikuskizun eszenikoei dago kienez, Xarivarik Maalan eskainitakoa izan zen "ikusgarriena" eta umeei zuzendutako ekintzetan, parkea "gainezka" egon zirela eta Top Xfef sukaldaritza tailerrak arrakasta izan zuela gehitu dute.

Kirol arloan izandako ekitaldietan se-



kula baino jende gehiago izan zela esan dute eta esku pilotako San Bartolome Txapelketak "goraino" bete zuela Ikastolako frontoia. "Ikusleek datorren urtean mantentzea eskatu digute".

Sokamuturrak ikusmin handia sortzen du jaietan eta horren harira Udalak aurreratu du aurten San Bartolome eta Errosario kaleen erdian eta King-Kong parean jarri dituzten hesiak hurrengo urtean finkoagoak izango direla.

Udaltzainburu Javier Oñederrak azaldu duenez, jaiak "ia istilurik gabe" igaro dira. Udaltzainek honako kontuetan

esku hartu behar izan dute: osasun arazoren bat izan duten edo gauzak galdu zituzten herritarrei laguntzen, trafikoa zuzentzen, eta kalean sortu diren "iskanbila txikiak" konpontzen eta behar diren identifikazio lanak egiten. Jaietan, 20 salaketa jarri dituzte herritarrek Ertzaintzan eta Udaltzainguan, gehienak sakelako telefonoen edo poltsen lapurretengatik.

Udaletik eskerrak eman dizkiete jaiak antolatzen parte hartu duten elkarte, udal langile, eragile eta norbanakoei. "Lehen aldiz herritarrek proposatutako ekintzak jarri ditugu abian. Jai herrikoiak izan dira".

Eskulan ikastaroetan izena emateko aukera zabala dago Elgoibarren eta Mendaron

Inguruko gauzak berrerabiliz eta birziklatuz sormena lanterako ikastaroak antolatu ditu Mandira Studiok Mendaron, haur eta gaztetxoentzat (8tik 16 urtera bitartean). Astean ordubeteko bi txanda izango dira bakoitzarentzat, 16:45etik 20:00etara, taldeetan banatuta. 45 euroko kuota ordaindu behar dute hilabeteko, materiala barne, baina proposatutako birziklapen objektuak ikasleek eraman beharko dituzte. Izena emateko edo informazioa jasotzeko mandiraikastaroak@gmail.com helbidera idatzi edo 650988 799 telefonora deitu behar da. Ikastaroak urriaren 1ean hasiko dira, eta aurreratu dute helduentzako ikastaroak antolatzeko asmoa ere badutela.

Bestalde, Elgoibarren, berriztatze, birziklatze eta tapizatze ikastaroak antolatu ditu Eskuzek. Astearte eta ostegunetan

izango dira Pedro Muguruzako Eskolan, eta bi ordutegi daude aukeran: 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko deitu honako telefono zenbaki honetara: 615 764 337 (Nieves).

Egur arte tailerrak, berriz, zeramika ikastaroak antolatu ditu. Pott keramika arduratuko da irakasle lanetaz eta astean bi saio egingo dituzte: umeentzako tailerrak asteazkenetan izango dira, 17:00etatik 19:00etara, urritik abendura bitartean. Matriulak 20 eurokoa izango da eta prezioak sartuko da materiala ere. Helduentzako eskolak, berriz, asteazken arratsaldeetan izango dira, eta matrikulak 22 euro balio ditu, baina prezioan ez dago erabiliko duten buztina sartuta. Izena emateko azken eguna: irailaren 28a. Izena emateko: 666 557 538.

Euskal Herriko 20 kulturgile izango dira urriaren 6an Elgoibarren 'Euskara ala Ezkara' zikloaren 10. urteurrenean

Aurten modu berezian ospatuko da Elgoibarren Gotzon Garate zenaren omenezko *Euskara ala ezkara* zikloa, hamargarren urteurrena baitu. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak egun osoko jardunaldia antolatu dute urriaren 6rako DanobatGroup taldearen eta IMH ikastetxearen laguntzaz. Gai nagusia kulturgintza izanik Euskal Herriko 20 kulturgile gonbidatu dituzte Elgoibarrera. IMH ikastetxean 9:30ean hasi eta 19:30ean amaituko da zikloa Kultur Etxeko sotoan.

Uxue Alberdi, Aitor Nova, Gotzon Barandiaran, Lorea Agirre, Harkaitz Cano, Odei Barroso, Ines Osinaga, Oier Guillan, Ander Lipus, Gorka Arrese, Mursego, Itziar Ugarte, Peru Iparragirre, Paul Beitia, Edurne Azkarate, Ane Labaka, Nerea Ibarzabal, Amorante,



lazko zikloko argazkia. Uxue Alberdi eta Mari Luz Esteban.

Malen Amenabar eta Mariñe Arbeek hartuko dute parte.

Kulturgintzaren eta honen baitako hainbat esparruren -antzerkia, musika, euskalgintza... -egoerari buruzko hausnarketak jasotzeaz gain, musikaz, kantuez, bertsoez eta marrazkiez gozatzeko

aukera izango da.

Izen-ematea zabalik egongo da irailaren 28ra arte. 943 74 16 26 (Imanol) zenbakian, elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidean edo www.elgoibarkoizarra.eus-en. Matrikula 30 eurokoa da, pintxo-bazkaria barne.

Gurasoen euskara ikastaroetarako irailaren 26ra arte eman daiteke izena

Elgoibarko Udalak, Udal Euskaltegiak eta AEK euskaltegiak gurasoentzako euskara ikastaroak jarri dituzte martxan, herriko ikas-tetxeekin elkarlanean. Oinarrizkoak, maila hobetzekoak, berba egiten trebatzekoak zein idazten eta irakurtzen trebatzekoak izango dira. Ikastaroak pertsonalizatuak izango dira, ordutegia gurasoen beharretara moldatu ahal izango baita. Gurasoek Udalaren beka lortzeko aukera izango dute. 0-12 urte bitarteko umeak dituztenek matrikula erdia ordainduko dute, eta bekaren bitartez, ordaindutako matrikularen erdia jasoko dute, ikastaro amaieran baldintza batzuk betez gero. Izena emateko epea irailaren 26an bukatuko da. Herriko bi euskaltegiatako batean eman behar da izena.

Euskal dantza ikastaroetan izena emateko epea zabalik Mendaron

Haritz Dantza Taldeko irakasleek euskal dantzak irakatsiko dituzte Mendaron datorren urriaren 1etik aurrera. Azpilgoetako Kultur Etxean izango dira saioak astelehen arratsaldeetan 16:45etik 20:00etara bitartean, maila guztietako herritarrentzat. Euskal dantzak gustuko izan eta ikasteko gogoia dutenek urriaren 1ean han azalduta jaso ahal izango dute informazioa eta izena emateko aukera ere egongo da, baita 696 414 796 telefono zenbakira (Nerea) deituta ere.

Edoskitzeari buruzko argazki lehiaketara lanak bidaltzeko azken eguna urriaren 10a

Amagandik edoskitzeari buruzko argazki lehiaketa antolatu Mendaroko ospitalak. Argazkiak berriak eta originalak izan behar dira, koloretakoak zein zuri-beltzekoak eta parte hartzaile bakoitzak hiruna argazki aurkeztu ahal izango ditu. Parte hartzaile bakoitzak argazkiei inskripzio-dokumentua eta irudia biltzeko eta zabaltzeko baimena jarri beharko dizkie. Argazkiak urriaren 10era arte bidali ahal izango dira helbide honetara: bpso.osidebabarrena@osakidetza.eus.

36ko gerran hildakoak oroitzeko asteburua izango da hau Elgoibarren



Frankistek hildako gudari, miliziano eta zibil elgoibartarrak omenduko dituzte bihar, Olasoko hilerrian dagoen Kolunbarioan, 11:00etan. Memoria historikoaren aldeko Elgoibar 1936 taldeak antolatu du omenaldia, eta hildakoen senideak izango dira bertan. Hainbat seniderekin bat egitea lortu duten arren, denen berri ez dute izan eta hildakoen zerrenda luzeagoa izan daitekeen ustea ere badute. Beraz, honen gaineko informazioa duenari eurekin harremanetan jartzeko eskatu diete antolatzaileek (*elgoibar1936@gmail.com* edo 605 772 285 telefona). Bestalde, igandean, urteroko omenaldia egingo diete agintariek eta memoria historikoaren aldeko taldeek 36ko gerran hildako gudariei, Zirardamendin. 10:00etan irtengo dira oinez Aiastiako frontoitik eta bidean hiru geldialdi egingo dituzte: Gernikako arbolaren kimuen aurrean, lau gudarien gorpuzak topatutako lekuan eta gurutzean. Han, lore eskaintza egin eta Eusko Gudariak kantatuko dute.

Joseba Olazabali elkartasuna agertzeko elkarretaratzea antolatu dute Mendaron biharko

A8 autobideko zarategatik protestan diharduen Joseba Olazabalen aldeko elkarretaratzea egingo dute Mendaron bihar, irailak 22. Mañuska parean izango da, hilerrirako bidean, 12:00etan. Olazabal mendarotarrak, A-8 autobideko zaratekin gogaituta, pantaila akustikoak jartzeko eskatu du behin eta berri, eta ezaguna egin da autobideko zarata salatzeke duen modu bitxiagatik. Ekainean ere

egin zuten horrelako elkarretaratze bat eta orduan bezala Behe Nafarroako Bilau folk taldekoek zuzeneko musika saioa eskainiko dute orain ere.



Udal Musika Bandaren kontzertua domekan

Elgoibarko Udal Musika Bandak hileroko hitzorduekin jarraituz hurrengo ekitaldia igandean, irailaren 23an, egingo du 12:30ean Herriko Antzokian. Gorka Mujikak zuzenduta honako piezak joko dituzte: L'Amistat (Ferrer Ferrán), Celtic Flutes (Kurt Gable), 76 trombones (M. Wilson- N. Iwai), Carnaval in Sao Paulo (James Barnes) eta El libro de la selva (M. Peters). Bigarren piezan Irune Arriola eta Nagore Rz. de Escudero arituko dira flauta bakarlari.

Emakumeentzako coaching tailerra Elgoibarren

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak emakumeen jabeakentzako coaching tailerra antolatu du Eider Perezek gidatuta. Norbere buruaren ezagutza sustatzea eta baliabide pertsonalak erabiliz ahalduntzea da helburua. Bi orduko 10 saio izango dira urrian hasita [18:30etik 20:30era. Kultur Etxeko sotoan. Asteartean, gaztelaniaz, eta asteazkenetan, euskaraz]. Izena emateko hiru aukera daude: Herritarren Arreta Zerbitzura joan, 943 741 050 zenbakira deitu edo *arreta@elgoibar* helbidera idatzi. Ikastaroa doakoa da, baina plazak mugatuak dira.

Kilometroak jairako autobusak Elgoibar eta Mendarotik

Urriaren 7an ikastolen aldeko Kilometroak jaia izango da Urretxu-Zumarragan. Elgoibartik eta Mendarotik autobusak ipiniko dituzte hara joateko. Elgoibarko Izarrak Udalaren babespean antolatu du autobusa eta elkartean eman behar da izena urriaren 4ra bitartean. 10:00etan Sigmako autobus-geltokitik abiatuko da autobusa eta itzuli 20:00etan. Txartelak 8 euro balio du eta elkarteko bazkide izanez gero, 7 euro. Mendarotik, Udalak antolatutako autobusean joan nahi dutenek irailaren 30a baino lehen erosi beharko dute txartela, 5 eurotan, Gaztelekuan edo Morroskillon. Autobusa tren geltokitik irtengo da 10:30ean eta itzulerakoa 20:00etan izango da.

Sotoko Hotsak eta Gararock, bi eskaintza baten

Iñaki Ovejerok egin du Sotoko Hotsaken kartela eta Ander Mujikak Gararockena.



Musikazaleak zorionekoak dira, bete-betea datorrelako asteburua. Sotoko Hotsak ekimenaren barruan, Sinüosek Ainara Legardon (gaur) eta Broken Brothers Brass Band taldea (bihar) ekarriko ditu Elgoibarrera, eta bihar arratsaldetik aurrera, Mendaroko Garagartza auzoko plaza hartuko dute Anarik eta itzal luzeko beste dozena erdi bat taldek, Gararock jaialdiaren barruan. Gararockerako, gainera, Juan Carlos Cebrian mendaroarrak duela 20 urte grabatutako 'Lunático encerrado en un desván' lana berrargitaratu du Screaminguy Recordsek, Mendaroko El Cubo estudioan berriz masterizatu ostean, eta salgai izango da. Lili Moon, Mendaroko pop-rock talde ezagunaren arimatzat dute askok Cebrian eta hark musikari egindako ekarpena eskertu nahi izan diote modu horretan herriko musikazaleek. Osagai guztiak batu dituzte beraz Sinüose kultur elkarteko lagunek eta Gararock jaialdiaren antolatzaileek, asteburu biribila izateko. (Aldizkariaren azalean, Sinüoseko Iban Urizar, Patxi Zabaleta, Ander Mujika eta Jon Gurrutxaga, eta Gararocken antolakuntza-taldeko Ana Perez, Ina Iriondo, Josu Iriondo eta Eneko Iriondo).

- AINARA ARGOTIA -

▶ AINARA LEGARDON MUSIKARIA

Talde ezberdinetan jo izan du nahiz diskoak bakarka kaleratu. Zigilu bat ere sortu du eta urteak daramatza inprobisazioa eta esperimentazioa lantzen. Performantzia egin du, programatzailea izan da, luthierra ere bai, idazle-lanetan ere jardun da eta soinu-bandak sortu izan ditu antzerki eta dantza taldeentzat. Are, eskolak ere eman ditu, eta jabetza intelektualaren gaian aholkulari aritzen da. Hori dena eta gehiago da Ainara Legardon. Gaur, kontzertua eskainiko du Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan, 23:00etatik aurrera.



♦ Ez dut uste denetarik egin duzula esatea gehiegi esatea denik. Nola definituko zenuke zuk zeure burua? Zer da gehien interesatzen zaizuna?

Esango nuke jakinmin handikoa izateak definitzen nauela ondoen, ikertzeko eta ikasteko nahiak. Ahalegin bat eskatzen duten proiektuetan sartzen naiz beti, arriskua hartzea eskatzen duten proiektuetan; hau da, ikasteko aukera ematen didatentan. Hori da edozein prozesuren oinarrian gehien interesatzen zaidana.

♦ Rock-a, musika esperimental eta performance-a maistraki konbinatzen dituzula diote kritikoek. Zer topatuko dute gaur Sotora hurbiltzen direnek? Nola egiten duzu inprobisazio eta es-

“Guretzat plazera da Sotoko Hotsaken eszenatokian batu ahal izatea”

perimentazio hori zuzenekoetara eramateko?

Kasu honetan duela ia urtebete kale-ratu genuen gure azkeneko diskoa aurkeztera goaz Elgoibarrera. Ez dugu aukera handirik izaten diskoa bandan aurkezteko, taldekideok elkarrengandik urruti bizi garelako, eta denok ere beste proiektu artistiko askotan sartuta gabiltzalako, nor bere aldetik. Gaurko kontzertuaren oinarria hiru lagunek osatzen dugu: Hector Bardisa baterian, Ruben Martínez baxuarekin eta ni gitarra eta “zarata-sett” osoarekin. Xabier Erkizia disko-ekoizlea ere gurekin izango da. Ez dugu gaurko propio entsegatu, baina hori da gure proiektuaren ezaugarrietako bat, inprobisazioa eta esperimentazioa dituelako oinarrian. Ondo ezagutzen dugu elkar, konfiantza handia dugu elkarrengan eta horrek bidea ematen digu halakoak egiteko eta egiten dugunarekin gozatzeko.

♦ **Musika eskaintza bete-betea dugu asteburu honetan gurean, Sotoko Hotsak eta Gararock jaialdiak ditugulako. Musika zaletasun handiko lagun talde biren lana dago atzean. Ezagutzen dituzu haietako batzuk, haiekin ere jotakoa zarelako. Nola baloratzen dituzu ekimen hauek?**

Sotoko Hotsaken kasuan esango dizut niretzat oso garrantzitsua zela gure erreperitorio berria testuinguru horretan aurkeztea. Esan duzun bezala, antolatzailenetako batzuk lagunak ditugu eta haiekin musika asko egin eta partekatu izan dugu. Eskertzekoa da euren etxean hartu izana. Guretzat plazera da euren

eszenatokian batu ahal izatea.

♦ **Zure karrerako zein puntutan zaudela uste duzu? Zer beste duzu orain esku artean?**

Adinagatik, bide erdia egina dudala pentsatzera derrigortuta nago, nahiz eta iruditzen zaidan beti ari naitzela ikasten, gauza berriak egiteko eta ikertzeko dudan afizio horregatik. Eta horrek, ni ondoen definitzen nauten bidez ezaugarri horiek egiten dute sarri hasiberria edo aprendiza sentitzea. Esperodut sekula ez galtzea sentsazio hori. Eta zer beste plan dudan orain? Jarraitu nahiko nuke jabetza intelektualari eta arte performatiboari buruz gehiago ikasten, formatu ezberdineko kontzertuak ematen eta beste artista eta kultur eragile batzuentzat aholkulari lanak egiten.

♦ **Zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Eskerrik asko emandako babesagatik.

ANARI ALBERDI MUSIKARIA

Bere izen bereko diskoarekin hasi zuen musika ibilbidea 1997an. Gerora estudioko beste bost lan publikatu ditu: *Habiak* (2000), *Zebra* (2005), *Irla Izan* (2009), *Zure aurrekari penalak* (2015) eta *Epilogo bat* (2016). Gainera, 2006an, Bidehuts ekoiztetxea ere sortu zuen Lisabö, Inoren *Ero Ni* eta *Hoteleko kideekin*, *Do it yourself* filosofiari helduta, eta musika munduan osatutako ibilbide horregatik, apirilean, Adarra Saria eman zion Donostiako Udalak. Musikari osoa da, eta kezka askoren artean badu bat bereziki lantzen duena: euskara eta feminismoa. Eskafandra kolektiboko kide da, euskarari eta emakumeari arnasa emateko sortutako lagun taldekoa. Bihar Mendaron izango da, *Garagartzan* (22:30).

♦ **Hogei urtetik gora daramatzazu underground munduan nahieran mugitzen, eta gaur erreferente ere bazara. Gaurko gazteek musika jakin bat bakarrik entzuten dutela esaten den garaian zeure lekua egin duzu. Ez zara bizitzari**



erretrobisoretik begiratu zalea, baina nola baloratzen duzu egindako bidea?

Adarra Sariak nire ibilbideari begira jarri ninduen, baina nik ez dut nire bizitza horrela ulertzen. Nire bizitza musikala, nire bizitza bera bezala, *continuum* bat da.

Aurreko diskoaren eta etor daitekeenaren artean ikusten dut nik beti nire burua. Jotzen jarraitzen dugu, eta bila ari gara. Etenik gabeko bilaketa da gurea. Ez dut inora iritsi beharrik sentitzen. Kontzientea naiz gauza batzuk egin ditudala eta es-

“Esateko beste bide bat bilatzen dut, lehen egindako horren ukazioa legetzat hartuz”

perientzia bildu dudala, baina besterik ez. Nire lekua topatu dut eta lanean dihardut. Ez nuke esango, hala ere, publiko-masa handia mugitzen dugunik. Nahikoa underground gara gu oraindik. Gu gure betiko lekuan gaude, baina jotzeko aukera asko dauzkagu eta niretzat hori da garrantzitsuena. Ez nago ados, gainera, gazteek musika jakin bat bakarrik entzuten dutela diotenekin. Euskal Herrian oso proposamen interesgarriak eta arriskatuak daude, publiko fidela dutenak.

♦ **Proposamen interesgarri horietako bi dira Sotoko Hotsak eta Gararock. Nola baloratzen dituzu jaialdi hauek? Zein formatorekin eta zer eskaintzera zatoz?**

Gogoz goaz, oporretatik bueltan lehenengo kontzertua dugulako. Askotan landu ditugu asko jotzen ez genituen zenbait abesti eta horiek ere joko ditugu ohikoagoekin batera. Biznaga, Jupiter Jon eta hor joko duten beste zenbait talderen jarraitzaileak gara, gainera, eta gozatzera ere bagoaz. Herri bateko lagun-talde batek musikarekiko pasioz antolatutako jaialdia da Gararock, eta guretzat zortea da ezaugarri horietako jaialdi batean izatea. Anarirentzat, eta eszenarentzat oro har, izugarria da euren eguneroko lan eta arduz gain, halako jaialdi bat antolatzeko lanari heltzeko ilusioa duen jendea dagoela ikustea. Eskertzekoa benetan.

♦ **Zure letrek beste ezerk baino agerriago uzten dute konformagaitza zarelara, artistikoki behintzat. Zerk motibatzen zaitu bila segitzeko?**

Nire kasuan gero eta gehiago doa abestiaren pisua letretarantz. Musikalki baltiz, ahalko nuke zerbaite grabatu oraintxe, baina niri hitzek esaten didate noiz egin behar ditudan abestiak eta noiz grabatu behar ditudan. Esateko beste bide bat bilatzea gustatzen zait, lehen egindako horren ukazioa legetzat hartuz. Beti gustatu izan zait egin ez dudana zerbaite egitea. Hori da nire motorra.

♦ **Eta zer berri dakarzu ba?**

Neuk ere ez daukat argi oraindik.

♦ **Esana duzu emakume izateagatik bi disko gehiago behar izan dituzula zuk**

beste askoren leku berera iristeko. Elgoibarren eta Mendaron kartelburu izango zarete Ainara Legardon eta zu. Musikagintzan, eskafandra (oxigenorik ez dagoen lekuan arnasa hartzeko erabiltzen den jantzia) jantzita zabilatzatela iruditzen zaizu? Oxigeno nola ikusten duzu zuen mundu hau?

Eskafandrako lagunok biltzen hasi ginen ez genekien oso ondo zertarako biltzen ginen, baina afari baten bueltan hizketan hasi ginean konturatu ginen gutako bakoitzari gertatzen zitzaiquina denon gertatu izan zaigula noizbait. Eta Eskafandrak hori eman dit, perspektiba hori, nekizkien gauza batzuk interpretatzen jakiteko bidea. Hori esanda aitortuko dizut gustura entzun dudala galdera nola planteatu duzun eta baita kartelburu gu garen kontu hori, mezua bestera izaten delako sarri. Gure inguruko jaialdi gehienetan, emakumeak kuotak betetzeko sartzen dituzte sarri. Eta garbi laga nahi dut nik neuk ere kuoten alde egingo dudala, besterik asmatu arte, baina sinistu nahi nuke modu naturalean ere gertatu daitekeela jaialdi batean gizon beste emakume artista izatea, edo gehiago. Ainara Legardon sekulako tipa interesgarria da; garbi esanda, hemen ez daude Ainara Legardon bi. Ez da emakumezko gitarrista bat; sekulako artista da. Begira, Azkena Rocken-eta ikusi dugu berdintasuna sustatzeko ahalegin bat egin duten arren zabaldu dituzten mezuak oso ahulak izan direla beti. Ematen du artista emakumezko bila ibili behar bat dagoela beti, eta nik pentsatzen dut hori modu naturalago batean ere gerta daitekeela. Ona edo garrantzitsua zer den gizonek erabaki dute hemen beti, eta horren ondorio da hori dena. Baina gizartearen erdia baldin bagara emakumezkoak, behar-

bada, garaia dugu geuk ere ona edo garrantzitsua zer den erabakitzen hasteko. Nire inguruko batek behin esan zidan moduan, batzuetan saiatzen dira emakumea azpimarratzen eta tatxatu egiten dute. Ainara eta biok kartelburu izatea salbuespena da gizonen mundu honetan eta pozten nau jakiteak badaudela gizon-emakumeak bi jaialdi hauek antolatzen ari direnen gisara pentsatzen dutenak.

♦ **Eszenan zaudeteno buruz gero eta gehiago hitz egiten da, baina zuk zer ikusten duzu goitik?**

Ikusten dudana da jende askori iruditzen zaiola emakume musikarien kontzertuetan publikoa ere emakumezkoa dela, eta aldiz, gizonen kontzertuetan publikoa ere bada mistoa dela. Baina ez, gure publikoa ere bada mistoa. Egia da nik ere ikusten dudala leku garrantzitsuena, aurre alde hori, emakumeek hartzen dutela Anariren kontzertuetan eta zenbait gizon deseroso sentitzen direla espazio horretan sartzeko, baina horiei esango nieke holaxe sentitzen naizela ni bizitzako kontzertu denetan. Beraz, zer ikusten duzu nik oholtzatik? Gizonak bigarren plano batean gelditzen direla gure kontzertuetan, atzerago; aukeratzeko dutela edo sentitzen dutela hor gelditu behar dutela. Gero beste kontu bat da horren oihartzuna eta horren esplikazioa. Hori esango nuke. Hori eta gure publikoa emakumea edo gizona izan ez dela gauza bera, ez dela berdin baloratzen. Emakumeak egiten duen denak balio du gutxiago. Ni neu oso gustura nago nire publikoarekin; asko eman eta asko irakatsi dit.

♦ **‘Do it yourself’ filosofiari heldu diozue zuk ere. Aukeran edo derrigor hartutako bidea da autoekoizpenena?**

Nork beretik erantzungo dizu. Nire kasuan esango dizut aukera bat dela, beste errazago batzuen artean. Nik beti pentsatzen dut egiten dudana hori pentsatzen dudana horren isla izan behar dela eta hori bilatu dut Bidehutsekin ere, nahiz jakina guk ere ez dugun lortu dena kontrolatzerik.

Gainerako talde gonbidatuak

THE BROKEN BROTHERS BRASS BAND

Bihar, 12:00etan, Elgoibarren



Iruñearrak dira eta kale eta jaialdi askotan aritu izan dira jotzen: Donostiako nahiz Getxoko jazzaldietan, Zaragozakoan eta kaleko banden Haizetara jaialdian, besteak beste. Baina edozein herritako jaietan ere topa ditzakegu. Hamaika lagunek osatzen dute taldea eta tronpeta, tronboi, saxfoi, bonbo, kaxa, pandero eta abarrekin dantzan jarriko dute parean topatzen duten edonor. Musika bizia eta dantzagarria egiten dute.

TRAKAMATRAKA

Bihar, 16:00etan, Mendaron.



Musika aniztasuna, sormena, irudimena, eta ingurumenarekiko konpromisoa uztartzen dituen proiektua da Trakamatraka. Etxean dugun edozein material birziklatu eta musika tresnak sortzen erakutsiko du Jon Urrutiak: jazz erritmodun mangerak, didgeridoo bihurtutako jogurt poteak, kriskitin konplexua duten maionesa tapa jotazaleak... Ume zein nagusientzako ikuskizuna eskainiko du Garagartzako plazan.

DR. MAHA'S MIRACLE TONIC

Bihar, 18:00ean, Mendaron.



2011ko udan sortu zuten taldea, eta ordutik talde askorekin kolaboratu izan dute. Western-swingy eta rhythm@blues doinuak jotzen dituzte, eta 40ko hamarkadaraino eramaten dute publikoa, mende hasierako Vodevil eta Medicine Show direlakoei gorazarre eginez. Kantu dantzagarriak egiten dituzte, eta haien kontzertuak publiko zabalarentzat dira gozagarri. Bilbao Hiria pop-rock lehiaketako bi sari jasotakoak dira.

LAST FAIR DEAL


Bihar, 19:00etan, Mendaron.



Hard rock, blues eta southern rock doinuak uztartzen ditu talde bizkaitar honek. 2016an, hirugarren diskoa argitaratu zuten: *Odyssey in The Key of three*, eta horixe aurkeztera datoz Mendarora. Hipnotikoak ere gerta daitezkeen rock-doinu gogorak eta gitarra doinu zorrotzak dira talde honen bereizgarriak. Horiek eta Gonzalo Portugal abeslariaren ahots sakon eta gogorra. Osagai guztiak dauzka zuzeneko indartsua izateko.

JUPITER JON

Bihar, 20:00etan, Mendaron.



Rhythm and bluesa, post-punka, reggaea eta folka nahasten dira Jupiter Jonen eskaintzan. Bere bigarren diskoan (*Eta metaforak greba egin zeben...*), are gehiago nabarmendu da heterogeneotasun hori, bereziki *Paleolitikoa eta gero Elvis* kantuko rockabilly tipoko onomatopeietan eta *Navajo Kodigoan* kantuko doinu afrikarretan. Kantuak aberastu egin dituztela dioenik ere bada: horien ustez pulituagoak dira eta konponketak eta gitarra-jolasak, zainduagoak.

RUBIA

Bihar, 21:00etan, Mendaron.



Sara Iñiguez abeslari eta konpositore getxoztarrak 2004. urtean jarri zuen martxan Rubia proiektua. Rock, psikodelia eta country rock doinuak nahasten ditu berezkoa duen pop doinue-tarako eta melodietarako erraztasuna gehituta. Sei urte geroago, *2036* diskoa kaleratu zuen, eta 2015ean, *Barman*. Laugarren diskoarekin lortu zuen, baina, oihartzun handiena, *The Game* lanarekin. Soul, rhythm and blues eta brill building pop doinuak ekarriko ditu Mendarora.

BIZNAGA


Bihar, 23:45etan, Mendaron.



Madrilgo Lavapies auzoan sortu zuten Biznaga, 2011n, eta 2014an argitaratu zuten euren lehen lana, ospea eman ziena: *Centro Dramático Nacional*. Bigarren lana, *Sentido del espectáculo*, Kaki Arkazorekin grabatu zuten eta AEBetako Slovenly Records disketxearekin argitaratu. Atea zabaldu zien mundura lan horrek, eta 2017an, musika talde onenen zerrendan sartu zituzten. Mendarora bigarren diska hori aurkeztera datoz, indie-pop-rock ukitua duten punk doinuekin.

DJ ART-ETXE

Bihar, 00:30etan, Mendaron.



Taldetik talderako tartetan ere ariko da Dj Art-Etxe Gararocken, baina 00:30etik 1:30era bitartean bere tarte propioa izango du, Musika Eskolako terrazan. Iñigo Artetxe Olaizola da Dj Art-Etxe, Zarauzko Rockumentalak musika dokumental zikloaren sortzaileetako bat. Azkeneko hamar urteotan di moduan ere badabil, Euskal Herrian nahiz hemendik kanpora. Tokian tokira eta unean uneko publikora moldatzen du bere musika eskaintza eta horixe egin asmoa du Mendaron ere.

EUSKARALDIA

Euskararen herria euskaldunago egiteko ariketa



laz, abenduaren 3an, Kalegoen plazan egindako aurkezpeneko argazkia.

Indartsu dator Euskaraldia, gure hizkuntza-ohituretan eragiteko asmoz Jaurilaritzak eta Euskaltzaleon Topaguneak sortu eta beste hainbat erakunde publiko eta pribaturen babesarekin martxan den ekimena. Euskal Herri osoko mapa zipriztindu du Euskaraldiak, eta Elgoibar eta Mendaro ere batu dira. Elgoibarko talde-eragileak atzo iluntzean aurkeztu zuen 'hamaiakoa', Euskaraldia ariketaren enbaxadore izango diren hamaika laguneko taldea, bai eta lokala inauguratu ere, San Franzisko kaleko 11. zenbakian. Euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasatzea proposatzen digu Euskaraldiak, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 11 egunez, euskaraz egitea. Ariketan parte hartzeko izena eman behar da.

Gure hizkuntza-ohituretan eraginda, ingurukoekin ditugun harremanetan euskara gehiago erabiltzea da helburua, azken urteotako eginahalak erakutsi duelako euskararen alde egotea ez dela nahikoa, egin ezean. Horregatik, jauzi kualitatibo bat egiteko garaia dela ikusi du Elgoibarren lau urtez euskararen aldeko ekintza sinbolikoak antolatzen jardun den talde-eragileak ere: Euskara 365 Taldeak (Gaur, Elgoibarko Euskaraldia Taldea). Ekimenak Elgoibarko Udalaren eta Dano-

batGroupen babesa du eta joan zen abenduaren 3an aurkeztu zuten Kalegoen plazan, baina atzo zabaldu zuten ariketan parte hartzeko izen-emate ofiziala, Kalebarren plazan Elgoibarko hamaikakoa aurkeztu eta Euskaraldiaren lokala inauguratzeko egindako ekitaldi jendetsuan. Euskaraldia babestu eta sustatuko duten 35 talde eta erakundetako ordezkariak parte hartu zuten ekitaldian. Azter dezagun, orain, puntuz puntu, zer den Euskaraldian parte hartzeko egin behar dena eta nola egin behar den.

11 EGUN EUSKARAZ azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Eman izena!

Nork parte hartu dezake?

Bi baldintza bete behar dira Euskalaldian parte hartzeko: euskaraz berba egiten jakitea edo euskara ulertzea eta 16 urtez gora izatea. Parte hartu nahi duten guztiek izena eman beharko dute.

Bi rol aukeran

Ahobizi: Euskaraz egingo die ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin egingo du euskaraz. Ezagutzen ez dituenekin lehen berba euskaraz egingo du beti, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerako denak ere bai.

Belarriprest: Euskaraz dakiten guztiei euskaraz egiteko eskatuko die. Euskara ulertzen duela adieraziko die besteei eta berarekin euskaraz berba egin dezatela eskatu. Berak, bere ahalen arabera erantzungo die, euskaraz, erdaraz nahiz bietara.



Izena emateko

Nork: Elgoibartarren kasuan, lau bide daude izena emateko (Mendaron ez dute zehaztu oraindik non eman beharko den izena):

- Idatziz: elgoibar@euskalaldia.eus
- Telefonoz: 943 741 626
- On-line: izenematea.euskalaldia.eus
- Euskalaldiaren lokalean. Atzo zabaldu zuten eta ondorengo ordutegia izango du: Iraila eta urria, astelehenetik barixakura egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara. Eta, azaroan, 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute aste barruan, eta zapa-tuetan, 11:00etatik 13:00etara.



Alde egotea ez delako nahikoa

Euskararen alde egotea ondo dago, baina ez da nahikoa euskaraz egiten ez badugu.

Euskarak 365 Eguna ekimenaren harira, 2012an hasi ginen elgoibartarrok herriko plazak eta kaleak betetzen. Euskararen alde gaudela esateko irten gara urtero abenduaren 3aren bueltan. Hori ondo dago, baina ez da nahikoa.


Lau urtez euskararen alde gaudela esaten jardun ondoren, Elgoibarko *Euskarak 365 Eguna* Taldea osatzen dugun 15 elkarte-erakundeok beste urrats bat eman behar dugula erabaki genuen. Zer egin pentsatzen geundela izan genuen EUSKARALDIA herri ekimenaren berri. Euskararen erabilera areagotzeko ariketa soziala. Gure hizkuntza ohituretan eragiteko. Euskal Herri osoan. *Ahobizi. Belarriprest.*

Idea eta egiteko modu berriak ikusi genituen, eta ilusioa piztuzuen taldean. Ariketak sinplea zirudien baina berehala konturatu ginen EUSKARALDIA ariketa sakona dela.

Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea

lazko abenduaren 3an, 600 lagunengana aurrean aurkeztu genuen EUSKARALDIA Kalegoen plazan. Harrez gero, herriko haizmaika elkarte eta erakunde bisitatu ditugu, eta egia aitortu behar badugu, oso harrerakona izan du herritarren artean. Momentuz herriko 35 elkarte-erakundeek esan dute EUSKARALDIA ariketa babestu eta sustatuko dutela. Beraz, iritsi da benetako ordua. Iritsi da egotetik egitera pasatzeko ordua.

16 urte beteta badituzu eta euskara ulertzen baduzu, animatu ariketan izena ematera. Animatu eta aukeratu zuk nahiago duzun rola: *ahobizi* ala *belarriprest*. Animatu, gehienetan euskaraz egiten duzuenok; animatu, euskaraz batzuetan baino egiten ez duzuenok; eta animatu, baita ere, euskara ulertu bai baina berba egiteko zailtasunak daukazuenok. Zuek denontzat da EUSKARALDIA ariketa. Alde egotea ez dela nahikoa pentsatzen dugun guztiontzat.



“Gizonok ezjakinak izan gara sentimenduak eta emozioak kudeatzen”

► IÑAKI ZULAIKA TOKA GIZONEZKOEN TALDEKO KIDEA

Gizonentzako elkarbizitza tailerra egin zuten joan zen asteburuan Elgoibarko Upai Goiti baserrian, Tokak, Zarauzko Gizonen taldeak, antolatuta. Gizonen gizonengana hurbiltzeko zailtasun handiak dituztela ikusita, Vicente Dominguez *coach*-a gidari hartu eta talde gogoeta egin zuten. Tokako Iñaki Zulaikak (Getaria, 1977) azaldu ditu tailerren muina eta gaiaren nondik norakoak.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

◆ Gizonentzako tailerren gorpuzta, harremanak eta sexualitatea gaik landu dituzue. Nola irakurtzen dituz gizonentzako kontzeptu horiek?

Ondo bizitzeko, pertsonentzat oso garrantzitsuak dira harremanak, diruak edo beste edozerk baino zorientasun handiagoa ematen digutelako harreman onek. Gizontasuna hortan umezurtz dago. Harreman ereduak aldatzen ari dira eta bizitzan garatzeko -eta gizonok hor asko daukagu egiteko- jorratu beharreko gai garrantzitsuak da harremanena.

◆ Aldatzen ari da maskulinitate-eredua ala gizonentzako gehiengoa pribilegioan eroso dago oraindik?

Erlazionatzeko moduan segituan agertzen dira mikromatxismoak, pribilegioak... Horren atzean heziketa, kultura eta urtetako zama daude, belaunaldiz belaunaldi transmititu duguna, gure seme-alabengaino. Lehengo eredu bikote harreman batek funtziona lezake biek onartuz gero, baina bietako batek fitxa mugitu ahala besteak egokitu beharra dauka, bikotean bertan nahiz gizartean aurrera egin nahi badu.

◆ Feminismoa mugitu da eta gizonentzako mugimendua gelditu da?

Gizonok, normalean, mesfidati jokatzen dugu gure sexu berekoekiko. Bizi eta jaso dugun heziketaren arabera bizitza



dugu, eta geuk nahi ezean gai honi buruz hitz egin, jai dago.

◆ Maskulinitate berriez hitz egiten da, baina badago mamirik horren atzean?

Gai honen inguruan gogoetan ibili diren gizonen zer kontatu asko dute, berdintasunari buruz hausnartu duten emakumeen antzera. Elkar ulertzera behartuta gaude, eta ezin du alderdi batek bestea ukatu. Nahiago genuke guri kaltegarri zaigun alderdia egongo ez balitz, diskurtso garatuago batean integrazioa errazago izateko.

◆ Berdintasuna aipatu duzu. Bide horretan maskulinitateak zer eskatzen du: al daketa ala posizio berriak hartzea?

Bizkaiko transexualen elkarteko kide batzuekin izandako jardunaldi batean argi gelditu zen gizonak eta emakumeak

ezberdinak garela. Transexualek gizon gorpuzta batean emakume sentitzen dira edo alderantziz, eta esan zuten hormontzean edo beste rola jokatzen dutenean ezberdin jokatzen dutela: ezberdin hitz egiten dutela, ezberdin gidatu eta sexu harremanetan ezberdin hartzen dutela. Bakoitzaren natura ezberdina da; berdintasunak eskubideetan egon behar du.

◆ Gizonentzako sumatzen al dira berdintasunaren aldeko joerak edo ekintzak?

Ezberdinak garen heinean, eskubide berdinetan lanketak erabat ezberdinak dira. Eskubideen esparruan emakumeak zapalduta daude, eta hor dagokie borrokatzea. Gu emozioetan eta sentimenduetan gaude zapalduak, ezjakinak izan gara hori kudeatzen, sentitzen eta bizitzen. Hortaz, gizonon lana da eskubide

horiek gauzatu daitezen laguntzea, baina lanketa pertsonaletik; guri lapurtu izan zaigun parteak geuk berreskuratu behar dugu. Bideak oso ezberdinak dira; emakumeena publikoa da, eta gizonona, intimoa goa, pertsonalagoa.

Gizon batek hori kuestionatu ezean, ez du egiten eta are gutxiago plazaratzen. Emozioak kudeatzen ez dakienak desesperazioa, inpotentzia edo amorrua sentitzen ditu hainbat egoeratan.

♦ **Gizon izanda gizonekoetan ohiko-tzat jotzen ez diren jarrerak hartzen dituztenen bizitzeko modu horiek nola ikusita daude?**

Hausnartu ez duen pertsona batek ezarritakotik haratago dagoena kondemnatu edo kritikatu egiten du. Pertsona horiek gehiengo taldeetan mugitzen dira, eta gehiengoaren diskurtsoa bestera hurbiltzen denean, aldatu edo muturreko jarrera hartzen dute. Emakumeek prozesua mugitzen dutenean gizoneko batzuek zalantzan jartzen dute, eta hor oreka bilatu behar da. Baina beste batzuk lehenagoko posizioan kokatzen dira, gotortuta baileude bezala.

Komunikabideetako diskurtso formalak, politikoki zuzenak, irabazi du eta edozein gizonen dio horrekin ados dagoela. Baina egunerokotasunean esaten dugunetik egiten dugunerako tartean kontraesanak denok dauzkagu, eta gai hauetan beste inon baino gehiago.

♦ **Askotan maskulinitatea aipatu ordu-rako sexualitatearekin lotzen du jende-ari. Hala al da?**

Atal bakoitzak bere distortsioa dauka, eta gizoneko kasuan ezaugarri maskulinoak zerrendatzen hasten garenean, gehienetan, alde distortsionatua mugitzen gara. Sexualitatea oso genitalizatua dago. Gizartean oro har gizonak oso estresatuta gaude, eta sexua da, droga edo alkohola izan daitezkeen bezala, iheserako bide bat, plazera ematen duena. Baina hor dagoen gizon bat da atal hori batera garatu ez duena. Sexua tabua izan da, eta gizarte honetan, gure belar-naldian, ez zaigu erakutsi; kalean ikasi dugu sexuaz. Nik, esaterako, Vicente Do-

minguez gaia lantzen hasi zenean sentituen oso gustura edukiko nuela elkarrizketa bat aitarekin, baina ezin izan nuen.

♦ **Gizoneko lagun taldeetan lorpen sexualak baloratzeko joera dago oraindik ere.**

Bai, hala da zoritxarrez. Sexualitateaz apenas hitz egin dugun eta apenas dakigun. Lehengo estereotipoak gizarte patriarkalaren herentzia dira, eta *matxo alfak* hartzen du pisua, beraz, gustatu ala ez, badirudi hori ezagutzera eman behar dugula gizonok, zerbait izango bagara.

“Bakoitzaren natura ezberdina da, berdintasunak eskubideetan egon behar du”

♦ **Gaur egun pornografia asko kontsumitzen dute gazteek eta gazte ez direnek sare sozialen bidez eta horixe dute hein batean sexuaz “ikasteko” baliabide bakar. Zer arrisku du horrek?**

Pornografia sekulako pisua hartzen ari da, bai. Jaso berri dut Espainiako ikaste-txeetan sexu heziketa egokirako egin den dinamika baten berri, baina kontraesan bezalako gizarte batean gaude. Eraldaketaren edo garapenaren gurditik tiraka ari dira batzuk gauza sakonetan, diskurtso batekin. Baina atzetik, beste muturrean, tradizioan ainguratuta dago jendea. Gaur egun, Interneten, web pornoak oso eskura daude, eta hor agertzen dena porno marxista da. Heziketa egokirik jaso ez dutenak beren lagunekin sexuaren mundura gerturatzen direnean eredu oker hori oso eskura daukate eta hori jarraitzen badute, dominazioa, sumisioa, ‘gehiago eta hobeto’ bezalako kontzeptuak jasoko dituzte. Pertsonen arteko harremanak errespetuzkoak izan behar direla ikastetik oso urruti gaude.

♦ **Gaur egun aldatzea zaila da, ezta?**

Bai. Diskurtso bat daukagu oso garbia

eta gizarte hobe batera iristeko beharrezkoa, baina iragarkiak edo pornoa ikusiz gero, erabat aurkakoa da. Merkatura sartzen den estetika hori, neskenganako bonbardeo hori, gizonengana ere badator; beraz, lan handia dago egiteko.

♦ **Sexismo honek emakumeari eragiten dio batez ere, baina gizonekoei ere eragingo die, ezta?**

Garai batean errepresio sexuala emakumeen kasuan, oro har, ikaragarria zen, baina elizarekin, gizonekoengan ere bai. Eskubideak zehaztu eta legeak egin direnean garbi dago emakumeak baztertu egin direla. Esparru publikoan, berdintasunaren alde emakumeek egin dute gehien. Guk badauzkagu pribilegio batzuk berdindu behar direnak, eskubide mailan behintzat, eta badugu puntu ilun bat landu beharrezkoa: emozioena. Besteen sentiimenduekiko enpatia sortzen den momentutik zaila da pertsona horri kalte egitea edo pertsona hori azpiratzea. Umetatik mutikoak liderrak izateko hezten ditugu eta horretarako jende asko zapaldu behar da: lehenengo norbere kideak, mutikoak, eta gero neskek, hierarkian beharago daudenak. Beraz, horrela hezi den gizonekoak gero arazoak dauzka bere barne munduan sano mugitzeko. Gizonen sozializazio prozesuan oso garbi ikusten da: 3-4 urtera arte zoragarria da. 5-6 urtetan lehen haustura sortzen da, eta sistemak eskatzen du nerabezaroan berriz ere hurbildu daitezen bi generoak. Mutilei lehen ukatuak dituzten horiek seduzitu edo irabaztea eskatzen zaie, eta prozesu horretan mutiko askok asko sufrizten dute.

♦ **Gizartea maskulinitatean gotortuta baldin badago, nola ikusten duzu etorkizuna?**

Gurasoengandik jaso ditugun ereduak oso kaskarrak dira, baina aldi berean oso errotuak daude eta ez dira egun batetik bestera aldatzen. Badirudi, baina, bertsio ofiziala aldatzearen alde dagoela eta bada zerbait. Aldatu nahi duenak badu nola landu, inguruan bilatuz gero. Gizontzako tailerrak antolatzen dira, eta osatzea kostatzen den arren, gizon batek nahi izanez gero lortu dezake.

Herriko bi talde lehiatu ziren Espainiako Dardo Txapelketan, eta Jurgi Casadok hirugarren egin zuen 16 urtez azpikoetan

3.000 dardo jokalarik baino gehiagok hartu zuten parte Valentziako Oliva herrian jokatu zen Espainiako V. Dardo Txapelketan, irailaren 13tik 15era bitartean. Taldekako txapelketan bost maila desberdinetan banatuta zeuden taldeak. Elgoibarko bi taldek hartu zuten parte, Derry Taberna eta Gabaz dardo taldeek. Derryk D mailan hartu zuen parte eta final-zortzirenetako kanporaketaraino ailegatu zen. Taldeko kide gazteenak, Jurgi Casadok, hirugarren postua eskuratu zuen 16 urtez azpikoen kategorian. Taldekideek Derry tabernako Patrick-i eskerrak eman dizkiote emandako babesagatik eta txapelketarako egin zizkien kamisetengatik. Jurgi Casado, Gorka Panizo, Gorka Redondo eta Igor Otamendi lehiatu ziren Espainiako Txapelketan, baina Roberto Sanchez ere bada taldeko kidea. Gabaz taldeko laukotea maila bat gorago lehiatu zen, C Mailan. Lehen fasean sailkapena lortu ostean, final-zortzirenetako kanporaketak jokatzeko sailkatu ziren, baina ez zuten kanporaketa gainditu. Jonathan Blazquez, Egoitz Rodriguez, Iñaki Amesti eta Iñaki Burunzak osatu zuten Gabaz taldea. Azken biek, gainera, Gipuzkoako selekzioa ere ordezkatu zuten selekzioen arteko lehian.



Hirugarren eta laugarren postuak Lendinezentzat Intza-Tutturre eta Araia-Aratz kilometro bertikaletan

Bi kilometro bertikaletan hartu zuen parte Ainhoa Lendinezek aurreko asteburuan. Zapatuan, Intza Tutturre Aralarko kilometro bertikala korritu zuen eta hirugarren postua eskuratu zuen. Emakumezkoetan azkarrena izan zen Maite Etxezarretak (49:55) baino 40 segundu gehiago behar izan zituen. Intza herriko plazatik irten eta Tutnturre gaineraino dauden 3.850 metroko ibilbidea (963 metro positibo) osatu zuten. Domekan, berriz, Araia-Aratz kilometro bertikalaren bosgarren ekitaldia jokatu zuten Arabako Asparrena herrian. Maria Zorroza (44:48) gailendu zen emakumezkoetan eta laugarren egin zuen Lendinezek (50:56).



Anbotoko Mariren Kobara bisita "magikoa"

Anbotoko Mariren kobara bisita 'magikoa' antolatu du Morkaikok zaturako (irailak 22). Santa Klarako autobus geltokitik irtengo dira 8:00etan eta 9:00ak aldera Arrazola auzotik abiatuko dira oinez. Jose Luis Diaz "Txelu", Joserra Basaguren eta Joseba Negugogor *Negu* izango dira gidariak. Durangoakoa da *Negu*, eta Anbotoko Marirekin berba egiten duela dio. Izena emateko deitu 658 740 788 (Txelu) telefono zenbakira.

65 xakelarik hartuko dute parte Nazioarteko Danobat Irekian

Dena prest dago Nazioarteko I. Danobat Irekiari hasiera emateko. 65 xakelari arituko dira lehian, zapatuan eta domekan, IMHko Asmaola eraikinean. Lehen txanda zapatuan jokatuko dute, 11:00etatik aurrera. Zapatu azken txanda, sei-garrena, 19:30ean



hasiko da. Domekan 10:30ean hasiko dira partidak. Xakeko maisu handiek eta jokalaria amateurrek hartuko dute parte Zubi Ondo Xake Taldeak Danobat kooperatibaren, Elgoibar Udalaren eta Udal Kirol Patronatuaren laguntzarekin antolatu duen txapelketan. Antolatzaileek 2.000 eurotik gora banatuko dituzte sarietan. Gipuzkoan diru gehien banatuko duen xake irekia izango da, Donostiakoaren atzetik. Parte hartzaileen artean Espainiako Txapelketa irabazi berri duen Gabriel del Rio eta txapelduna izana den David Lariño galiziarra nabarmendu behar dira. Goi mailako partidak ikusteko aukera izango dute zaleek. Eta datorren astean beste txapelketa bat hasiko da Open Danobat Elgoibar azpi 2200 txapelketa. Irailaren 27tik aurrera 32 xakelarik jokatuko dute elkarren aurka Kultur Etxean. Abenduaren 13an amaituko da txapelketa.

Mugertza krosa IAAFen izango da, munduko bederatzikros onenek osatuko duten maila nagusian

Mugertza krosa IAAFeko maila nagusian izango da 2019an ere, Nazioarteko Atletismo Federazioak jakitera eman duen kros lasterketen egutegiko bosgarren proba izango baita Elgoibarkoa, 2019ko urtarrilaren 13an. IAAFek 2015ean sartu zuen estreinakoz maila nagusian Mugertza krosa. 2016an eta 2018an ere -75. urteurrena ospatu zuen edizioan, IAAF kategoriari eutsi zion krosak.



Era berean, Elgoibartik pasa diren antxitxikiariak protagonista izaten ari dira mundu mailan. 2004ko krosean txapeldunorde izan zen Eliud Kipchoge kenyarrak minutu eta hemezortzi segundo ondu berri du maratoiko munduko marka, Berlinen: 2.01.39. Rio de Janeiroko (Brasil) Olinpiar Jokoetan urrea irabazi zuen Kipchogek. Iaz Mintxetan gailendu zen Selemon Barega ere ari da zeresana ematen. Etiopiar gazteak sekulako marka (12:43) lortu zuen Bruselan korritu zuen 5.000 metroko lasterketan.

Bi erroberatan bizikleta irteera, domekan

Domekan, hilaren 23an, egingo dute Elgoibar 2 Erroberatan, Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzera animatzeko helburuarekin antolatzen duen irteera. 10:00etan Kalegoen plazan elkartu eta Sallobente-Ermuaren alderantz abiatuko dira, herriko kaleetatik itzuli bat eman ostean.

Etxeberria entrenatzaile kargutik kendu du Tenerifek



Bigarren Mailan diharduen C.D. Tenerife futbol taldeak entrenatzaile kargutik kendu du Joseba Etxeberria elgoibartarra, liga hasiera kaskarra egin eta gero. Orain arte jokatu dituzten bost jardunaldietan ez dute partida bakar bat ere irabazi eta sailkapeneko 19. postuan daude. Horrez gainera, Espainiako Kopatik kanporatu zuen Cadiz taldeak. Klubeko zuzendaritzak ez du gehiago itxaron nahi izan eta Joseba Etxeberria entrenatzaile kargutik kentzea erabaki du. Etxeberria 2018ko otsailean aitlagatu zen Tenerifera eta 23 partida ofizialetan zuzendu du taldea.

Olaizagako harrera berritu dute

Olaizaga kiroldegian zenbait berrikuntza lan egin ditu Udal Kirol Patronatuak, abuztuko itxialdian. Batetik, harrerako partak, sabaia eta argiztapena berritu dituzte; eta, bestetik, kantxako sabaitik zintzilik dagoen sarea aldatu. Guztira 51.400 euro inbertitu dituzte.

LANA.....**Eskaerak**

Adinekoen zaintzan lan egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka ere aritzeko gertu. ☎ 661 814 324

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan gauzez edo astebukaretan. ☎ 632 733 573

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan, orduka. ☎ 688 842 791

Adinekoak eta umeak zaintzen nahiz garbiketan egingo nuke lan. Etxeko langile moduan, edo orduka (gauak ere bai). ☎ 631 891 709

45 urte ditut eta goizez etxeak garbitzeko prest nago. ☎ 636 223 142

Eskola partikularrak ematen ditut, DBH 3, 4 eta Batxilergo mailetako ikasleentzat. ☎ 618 245 057

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile aritzeko prest. ☎ 685 036 902

Adinekoak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Etxeko langile aritzeko prest. ☎ 631 200 936

Adinekoak zaintzeko prest. Etxeko langile aritzeko nintzateke. ☎ 642 893 529

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. ☎ 632 326 679

Adinekoak edo umeak zaintzen zein etxeko garbiketetan egingo nuke lan. ☎ 643 158 766

Umeak arratsaldeetan zaintzen lan egiteko prest. Elgoibartarra eta euskalduna naiz. ☎ 687 114 707

Arabiera eta frantsesa irakasteko eskola partikularrak emateko prest Mendaran. ☎ 660 831 033 edo 620 665 224

Adinekoak zaintzen edo garbiketan lan egiteko prest. Orduka. ☎ 602 625 718

Adinekoak edo umeak zainduz edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko prest. ☎ 602 047 812

Etxeak, fatxadak... margotzeko prest. Margolari lanetan esperientzia handia daukat. ☎ 600 202 516

Atariak eta etxeak garbitzen zein adinekoak zaintzen lan egiteko prest. ☎ 631 790 555

Pertsona euskalduna prest adinekoak edo gaixoak zaintzen lan egiteko. ☎ 617 571 210

Pertsona arduratsua edozein lan egiteko prest. Etxeko langile modura zein orduka ere aritzeko gertu. ☎ 643 413 526

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka zein etxeko langile moduan. ☎ 612 222 362

Eskaerak

Elgoibarko denda baten lanerako neska euskalduna behar da. Interesatuak bidali curriculumare helbide honetara: *elgoibarko.denda@hotmail.com*

Elgoibarko taberna batek euskaraz hitz egiten duen esperientziadun zerbitzaria behar du. ☎ 649 963 892

DBH2 mailako eskola partikularrak euskaraz emango litzuzkeen pertsona baten bila gabilta. ☎ 617 386 198

Asteburuetan adinekoak zaintzeko pertsona euskalduna behar da. ☎ 615 006 733

ETXEBIZITZAK.....
Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 259 560

Etxebizitza alokagai Elgoibarko herrigunean. 3. solairua da eta ez dago igogailurik. Urriaren 1etik aurrera sartzeko moduan. ☎ 688 650 060

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruan. ☎ 669 339 529

Etxebizitza bila ari naiz Elgoibarren. Hiru logelakoa eta ekonomikoa. ☎ 632 839 617

Santa Ana kalean etxebizitza salgai. 3 logela, trastelekua, garajea eta igogailua ditu. Oso argitsua da. ☎ 688 607 655

GARAJEAK.....

Garajea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Elgoibarko erdigunetik gertu eta furgoneta-erentzako nahikoa altuerarekin. ☎ 688 697 340

BESTELAKOAK.....

San Bartolome jaietan belarritako bat galdu nuen Kalegoen plazatik Herriko Antzokira bidean. Norbaitek topatu badu deitu. ☎ 943 531 648 / 669 916 148

Ume txiki baten bizikleta utzi genuen Kalegoen plazan irailaren 1ean eta bila joandakoan ez zegoen. Norbaitek jasoa baldin badu deitu, mesedez. ☎ 679 624 518

Urrezko eraztuna galdu nuen. Nire familiaren armarrria dauka. Aurkitu duenak laga faborez Udaltzaingoa.

IBILGAILUAK.....

Zortzi metroko belauntzia Zumaian, *Furia 25*, salgai edo Camper furgonetan baten truke. ☎ 688 851 581

KINTA OSPAKIZUNAK.....

1948an jaiotako elgoibartarrek ospakizuna egingo dute urriaren 6an. Hitzordua: 12:00etan, Kalegoen plazan. Interesdunek 65 euro sartu urriaren 4a baino lehen Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: ES383035000723 0071132820. Kontzeptua: 1948an jaiotakoak.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos
Federación Vasca Administradores Recursos Humanos



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749


660 969 679

rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean presidente kargua hurrengo hartu behar dutenak banatuta dagoen bikote bateko etxejabeak dira eta normalean ez dira gure eraikinean bizi. Jakin nahi nuke ea presidente kargua egunerokotasunean eraikinean bizi den norbaiti pasa diezaiokegun.

Etxebizitza edo lokal bat irabazpidezko ondasun gisa bi ezkontide-ena bada legeak bien esku jartzen du ondasun horien kudeaketa eta antolaketa. Hortaz, bietako edozein izendatu dezakete presidente. Legeak espresuki azaltzen du presidentearen izendapena derrigorrezkoa dela. Kargua hartu behar duenak uste badu zeregin horretan jardutea galarazten dioten arrazoiak dituela, bide judizialek eskatu ahal izango du karguan ordezkatzeko, ekitate prozedura baten bidez. Hala ere, hasieran, izendatu dutena karguan egon beharko da ordezkaria izendatzen duen behin betiko ebazpena iritsi arte. Hau karguan egongo da behin-behinean, batzordeak berria izendatu arte.

Ondorioa: Egoera pertsonalak direla-eta (esaterako, normalean eraikinean ez bizi izatea), jabe jakin batzuk presidente kargutik kanpo uzten dituen edozein estatutu-klausula berdintasun juridikoaren oinarriaren aurkakoa da eta ez du ezertarako eskubiderik ematen. Beste kontu bat da, presidente izendatzen duten horrek ulertu behar duela egon daitezkeela arrazoi objektiboak besteak kargua ez bete ahal izateko. Kasu horretan formalki kudeatu behar da aurrez adierazitako prozedura.





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Hai-zea**, zure 11. urtebetzean. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zoriona, **Ainere!** Irailaren 25ean 5 urte handi beteko dituzulako. Patxo handi bat familia osoaren partez, eta bereziki zure ahizpatxo Intzaren partez.



Zorionak, **Paul**, atzo urtetxo bat bete zenuelako. Muxu asko familiakoen eta bereziki Martinen eta Peruren partez.



Ongi etorri, **Ibon Iriondo Mora**. Uztailaren 30ean jaio zinen. Muxuak familia guztien partez.



Zorionak, **Irati**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiakoen partez, eta bereziki Oierren partez.



Zorionak, **Judith**, igandean 13 urte beteko dituzulako. Egun eder bat pasa dezazula, zure lagunnen artean. Maite zaitut. Ama.



Ostirala eta zure zazpigarren urtebetetzea, **Luken**. Gaur bai egun handia! Gozatu! Patxo bat, etxekoen eta lagunnen partez. Maite zaitugu!



Zorionak, **Sara**, irailaren 18an urtetxo bat bete zenuelako. Ze azkar pasatzen den denbora! Mila zorion etxekoen, eta bereziki Eleneren partez.



Zorionak, **Noa**, ostegunean 5 urte bete zenituelako. Familiakoen partez muxu potolo bat.



Zorionak, **Malen**, bihar urtetxo bat! Muxu asko etxeko guztien partetik.



Zorionak, **Luken**, 4 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familia osoaren partez.



Zorionak, **Aitor** eta **Nagore**, bihar, irailak 22, ezkonduko zaretelako. Familia osoaren partetik. Ondo pasa eguna.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira. BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com
943 744 457

%35 arteko deskontuak!!

KOLTXOIAREN HILABETEA



IKASBAI
akademia

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiaelgoibar@gmail.com

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

RAY BAN JUNIOR
ARMAZOIA + LENTEAK **89€**-TIK



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

RPS 183/12

21 BARIXAKUA

18:30 Erakusketa: *Emeek emana*. Orduetgia: astelehenetik zapatara 18:30etik 20:30era. Irailaren 29ra arte. Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzaileak: Elgoibar 1936 eta Intxorta 1937 Kultur Elkartea.

21:30 Iraileko zine zikloa: *Lucky*. Elgoibarko Herriko Antzokian. Antolatzailea: Ongarri zine kluba eta Elgoibarko Udala.

21:30 Bideo foruma: *Kandahar*. Gidaria: Loredi Salegi. Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.

23:00 Sotoko Hotsak kontzertua: Ainara Legardon. Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailea: Sinüose.

22 ZAPATUA

11:00 Frankistek hildako elgoibartarrei omenaldia Olasoko hilerrian. Antolatzailea Elgoibar 1936.

12:00 Elkarretaratzea: Autopistako zaratengatik protestan diharduen Joseba Olazabalen alde. Mendaron, Mañuska parean.

12:00 Sotoko Hotsak: Broken Brothers Brass Band. Kalejira Kalegoen plazatik abiatuta. Ondoren, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailea: Sinüose.

16:00 Gararock: Trakamatraka. Garagartzan (Mendaro).

18:00 Gararock: Dr. Maha's Miracle Tonic. Garagartzan (Mendaro).

19:00 Gararock: Last Fair Deal. Garagartzan (Mendaro).

20:00 Gararock: Jupiter Jon. Garagartzan (Mendaro).

21:00 Gararock: Rubia. Garagartzan (Mendaro).

22:30 Gararock: Anari. Garagartzan (Mendaro).

23:45 Gararock: Biznaga. Garagartzan (Mendaro).

00:30 Gararock: DJ Art-etxe. Garagartzan (Mendaro).

23 DOMEKA

10:00 Elgoibar 2 Erroberatan. Kalegoen plazatik abiatuta. Antolatzailea: Kalamua Guraso Elkartea.

10:00 36ko gerran hildako gudariei urteroko omenaldia egingo diete Zirardamendin. Aiastiako frontoitik irtengo dira oinez.

12:30 Kontzertua: Udal Musika Banda. Herriko Antzokian.

25 MARTITZENA

17:00 Komiki tailerra. Mattin marrazkilariarekin. Gotzon Garate Udal Liburutegian. (Izen-ematea derrigorrezkoa. Plaza mugatuak).

28 BARIXAKUA

17:30 Kiribil. Maalako parkean. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Lucky'

21 Barixakua, 22:30



'El viaje de sus vidas'

22 Zapataria, 19:00/22:15 (VOS)

23 Domeka, 19:00

24 Astelehena 21:30



'Florida project'

27 Eguena, 21:30

21 Barixakua 21:30



Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 271/12
ainhoa
ikioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Terrible Etebarria, 22
Eibar
Tel. 943 106 020
Mug. 677 551 850

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00


GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
21 BARIKAKUA	22 ZAPATUA	23 DOMEKA	24 ASTELEHENA	25 MARTITZENA	26 EGUAZTENA	27 EGUENA	28 BARIKAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384


Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410



Javier Dominguez Osorio
2016ko irailaren 12an hil zen.

Beatriz Lopez Pelayo
2003ko uztailaren 6an hil zen.

**Zuen ondoan bizitza pozgarria izan zen.
Ez zaituztegu ahaztuko.**



Urretxu-Zumarraga ikastolen alde "Zubiak batuz" **KILOMETROAK 2018** Urriak 7, igandea

Autobusa antolatu dugu Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiari parte hartzeko. Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da. **Azken eguna: urriak 4.**

Irteera: 10:00 (Sigmako autobus-geltokia)
Itzulera: 20:00
Prezioa: 8 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 7)



Astrolotzaileak: Babenerak



Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

leku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com
RPS 112/18

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
R.P.S.: 32/17 Barandiaran
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ez. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404



Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Beldurrez joan nintzen, burdina- anemia gainditu berritan. Igonek, ere, osatu berri zeukan oina. Erronka handia zen guretzat, orain arteko handiena. Zazpi eguneko mendi bidaia, Andorrako eta Kataluniako Pirinioetan barrena. Gorputzez bagenekien ez gindoazela %100ean, baina niri neroni buruak ematen zidan beldurra. Ordu amaigabeetan mendian, ni, nire gorputza eta nire burua. Eskerrak laguna aldean nuela, noizean behin neure baitatik ateratzeko. Beldur nintzen pentsamenduak iraganera joango ote zitzaizkidan, bizitzaren errepa-soa egiten hasiko zitzaizkidala. Beldur nintzen, betiko beldurrekin bueltaka hasi eta burua neurrigabe nekatuko nuen.

Saiatu nintzen, hala ere, unean eta gunean egoten, eta iraganekeo pentsamenduak etorri eta, haiei "kaixo" esan orduko, "adio" ere esaten. Hurrengo markari segika uneoro, biderik ez galtzeko. Ordu erditik ordu erdira zerbait jan behar nuela gogorazten, ez makaltzeko. Orain makilak gorde, orain atera. Orain

txapela jantzi, orain erantzi. Orain atsedean hartu, orain lagunekin afaldu. Ordu luzez telefonorik ukitu gabe, ordu luzez autorik eta telebistarik ikusi gabe.

Gure mendi bidaia lagun arteko terapia bihurtu zait, eta lehenengo bizitzan, etxera itzuli eta opor osteko pattalaldia bizi izan dut barru-barruan. Ez gara mendian bizi, eta ez gara mendiaz bizi. Egunerokoan murgilduta, ohartu naiz zorte ikaragarria daukadala: beti ez bada ere, diruz eta gogoz asetzen nauten ogibideak, motibatzen nauten zaletasunak, neurrigabe maite nauten eta maite ditudan familia eta lagunak.

Ongi bizi gara, ederra da egunerokoa ere. Alabaina, 37 urte daramatzat pentsatzen benetan zertan naizen ona, benetan zer gustatzen zaidan bizitzan, zertara etorri naizen mundu alu honetara. Ez dakit inoiz deskubrituko dudana, baina udako mendi bidaia honek nigan ezagutzen ez nituen alderdiak ezagutzen lagundu dit. Zerbait ezberdina egin nahi nuen aurten, eta zerbait ezberdina izan da. Ni neu ere ez naiz Pirinioetara abiatu zen Ainhoa hura bera. Berrituta itzuli naiz, ustez onerako.

"Gure mendi bidaia lagun arteko terapia bihurtu zait"



Roberto Arrieta López

"Txabo"

2018ko abuztuaren 10ean hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Isabel Iturbe Cilleruelo

*Joan zinen gu hemen utzita,
baina jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.*

Osorotarrak



Maria Isabel Iturbe Cilleruelo

"Bristol"

2018ko irailaren 18an hil zen, 66 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



VI. URTEURRENA

Jose Mari Aramberri Urrutia

2012ko irailaren 13an hil zen.
Haren oroimenez VI. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailaren 22an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



Julian Juaristi Soraluze

"Artaso"

*Zure indarra eta adorea
gogoan dugun bitartean,
beti izango zara
gure artean.*

2018ko irailaren 19an hil zen, 66 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



etxegain

BIZIGUNEA

... ETA ORAIN
2 LOGELAKO ETXEBIZITZAK

145.000 € -TIK HASITA

Gorenean

WWW.ETXEGAIN.COM



elgoibar

2, 3 ETA 4
LOGELAKO
ETXEBIZITZAK

TERRAZA ZABALAK ETA
PERTSONALIZATZEKO MODUKO
TXOKOAK DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK

LOGELAK
10 M²-TIK
GORAKOAK

EGONGELA
GUZTIAK 20 M² -TIK
GORAKOAK

IKUSPEGI ZABALAK
DITUZTEN TERRAZA
HANDIAK GARAIERAN

etxegain goi-mailako sustapena duzu. Ikuspegi inbidiagarriz gozatzeko aukera ematen duen goragune batean, goi-mailako eraikin bati dagozkion materialez egina, eta betiere GRUPO EIBAREk eskaintzen duen zerbitzu-maila gorenarekin, zure etxebizitza pertsonalizatzeko aukera zabalekin.

etxegain en prezioak soilik dira baxuak, eta horregatik da goi-mailako higiezin-inbertsioa.



GE grupo eibar
inmobiliario

943 31 66 11

E.: comercial@grupoeibar.com
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

689 66 08 01

OSERA FINANZIADA POR:

bankoa | Groupe
Crédit Agricole